

Xavier Pastor

Espainiako Greenpeaceko lehendakaria

Greenpeaceren jarrera argitze aldera

■ Itoitzekiko Elkartasuna taldeak duela astebete egindako ekintzaren ondoren, Greenpeacek gaitzetsi egin zuen indarraren erabilpena urtegi horren eraikitzen egiten ari diren aberrazio ekologikoa geldiarazteko. Greenpeaceren jarrera horrek, guztiz koherentea eta har genezakeen bakarra kontuan hartuz gure erakundeak mundu osoan duela hogeita bost urtez geroztik pertsonen edo instalazioen aurkako indarkeriaz azaldu duen jarrera, ez du inor eraman behar gure jarrera bere interesen arabera azaltzera.

Argi gera bedi: Greenpeacek sendo eusten dio Aoziko ibarra sunsitzeta eragozteko kanpainan hartutako konpromezuari. Izan ere, geure eta aditu askoren iritziz, han eraiki nahi duten urtegia ez da beharrezkoa, ingurunean eragin izugarria izango du eta, gainera, zein eta beste ezinek baino lehenago legeak beteazazi beharko lituzketen erakundeak berak legeria etengabe hautsiz ari dira eraikitzen.

Berriro diogu: Itoitzekiko Elkartasuna taldearen ekintza hutsegite bat izan zen hainbat aldetatik begiraturata. Baina, aldi berean, argi utzi nahi dugu nazka ematen digula hainbat politikari eta sindikalista ekintzaz egiten ari diren erabilera oportunistak, egileak ezezik nola edo hala urtegiaren aurka agertu diren pertsonak ere kriminalizatzen ari baitira.

Pentsatzen dugu Itoitzekiko Elkartasuna taldekoei, besteak beste, KASekoak izatea, estrategia politiko-militar batean parte hartzea, edo are ETari lotuak izatea leporatzen dizkieten arduradun politikori, mahai ganean jartzeko adina datu izango dutela akusazio larri eta izugarri horiek frogatzeko. Horrela ez bada, zalantzan jartzen dugu eutsi ahal izango dioten beharrezko maila moralari eztabaidan jarrai-

Itoitzekiko Elkartasuna taldearen ekintza hutsegite bat izan zen hainbat aldetatik begiraturata. Baina, aldi berean, argi utzi nahi dugu nazka ematen digula hainbat politikari eta sindikalista ekintzaz egiten ari diren erabilera oportunistak, egileak ezezik nola edo hala urtegiaren aurka agertu diren pertsonak ere kriminalizatzen ari baitira

tzeko. Baliteke politikari horiek izatea beren alderdikideak autobiak, urtegiak eta beste azpiegiturak eraikitzen dituzten enpresen komisio handiak jasotzeagatik kartzelaratzan dituztenean, erregabetasun presuntzioa errespetatzeko eskatzen dutenetakoak —beren probetxurako—. Hain zuzen ere Urralburu, Aragon eta gisakoek ari naiz; zorionez, hainbat hilabetetatik hona ez ditugu jaso Nafarroako egunkarietako orrietatik urtegia eraikitzearen aurka gaudenoi demokraziaz eta herri ordezkartiaz ematen zizkiguten irakaspen balioetsuak.

Edozein indarkeria mota erabat gaitzesten dugun bidenabar, berriro ere MOPTMARI (Espainiako Herrilan, Garraio eta Ingurugiro Ministerioari) egosten diogu haserre giroa areagotu izana, aurrera jarraitu baitu Entzutegi Nazionalak legez kanpotzat jo dituen lan horiek.

Gobernuaren asmoa izango ote da, horrela jokaturata, gainontzeko herritarrei erakustea nola errespetatu behar den zuzenbidezko estatua?

Halaber, Greenpeacezentzat harrigarria izan da Nafarroako Gobernuak azaldu duen jarrera. Nolan da posible gobernu demokratiko batek behin eta berriro eskaini nahi ez izatea elkarrikeria bat nazioarteko erakunde ekopazifista bati, batera kontuan hartu gabe 70.000 espainiar baino gehiago ordezkatzan dituela, eta ingurugiroan eragin izugarria izango duen gai horretaz hitz egiteko aukera izatea aspalditik ari dela eskatzen etengabe?

Indarra erabiltzea beti da gaitzagarri, eta denoi dagokigu lan egitea indarkeriaz jokatzea eragozteko. Arduradun politikoei lehen lerroan egon beharko lukete ahalegin horretan, eta kontuan izan beharko lukete haserre giroaren areagotze horretan dagokien erantzukizuna. ■

Erredakzioan izulia

Xabier Barandiaran



Aldaia

I gandein ETak libre utzi zuen Aldaia eta asteburuko albiste nagusia horixe izan da ezbaierik gabe. Albiste pozgarria, bestalde. Komunikabideek hilabete hauetan guztietan Aldaia bizi izan duen esperientzia pertsonal horri buruz adierazi dutenera mugatuz, albisteak pozerako bide gehiago eskaintzen du oraindik. Orain, mahai ganean galdera ugari: zenbat ordaindu ote duen familiak, non egon ote den, eta momentuz erantzunik ez duten galdera ugari. Egia esan ez didate aparteko jakinmin berezirik sortzen galdera horiek guztiek: une honetan erantzunik garrantzizkoena pertsona baten bizitza da.

Eta orain zer? Zeren, finean, arazo honen muietako korapiloak hor jarraitzen du, eta azken denboran korapilo horren garapenean bada alde batera utzi ezinako salto kualitatibo bat. Euskal Herriko gizarte bizitzan azken hilabeteetan agerian zerbait jarri bada, hori herrikideon arteko gizarte harremanen tenis aragozteia izan da. Zentzu honetan, tenis hori baretzeko baliagarri diren elementu guztiak ongi etorriak izan bitez, Aldaiaren askatasunak aipaturiko norabide horretara apuntatzen duen neurrian pozerako bidea besterik ez du eskeintzen, edozein kasutan tenis horren inflexio puntu bilaka dadila behintzat. Jakina puntu honetan ez dela bukatzen auzia baina pauso bat izan liteke. Euskal Herriak poza hartu du Aldaiaren askatasunarekin eta poz hori bilakatu beharko du aurrerantzean ere herrigintzan eragina dutenen gidari bakarra. Esperantza horretara biltzen ez diren ahalegin guztiek sufrendua izango dute bere ezaugarri nagusia eta hortarako ez dirudi eskubiderik dagoenik.

Txillardegia



Elkar - ulerkuntza

P onte-Vedra-tik iritsi berria naiz. Bertako XIII Kongresoan parte hartzeko ohorea izan dut. Eta hamaika gauza aipagarri ikusi ondoren, pare bat besterik ez dut azalduko.

Lehenengoa, Sorbonne-ko Unibertsitatean ari den irakasle famatu bati gertatu zitzaiona. Bretotnera «hizkuntza hila» dela esan ondoren, aretoko emakume gazte bat zutitu zaito, eta... bretoi-neraz mintzatuz, esandakoa bai mingarria eta bai gezurrezkoa dela adierazi du. Gu entzuleon harritura norainokoa izan den azaldu beharrik ez...

Biharamonean beste gertakari xume, baina maitatu bat.artzelona-ko Unibertsitateko irakasle bat mintzo. Halako batez, Hego-Amerikako nazioen artean «funtsezko desberdintasunik» ez dagoela esan du. Hots, hori esan bazuen, esan zuen: Altiplanoko gizaseme beltzaren bat jaiki zaito, urduri eta haserre antzean: «Hace ya quinientos años que se intenta borrarlos del mapa; pero los indígenas, y nuestras culturas y lenguas autóctonas, seguimos ahí. Yo soy Aymara, de Bolivia; y protesto contra esa versión hispana y europeista de nuestra Historia...» Etxerakoan Stavenhagen jakitunaren lan bat berrirakurri dut. La Paz-en, Kollasuyon (zeratik Bolivian?), 40.000 Aymara elebarkar bizi da gaur! Eta guztira lau bat milioi Aymara eta Ketzua bizi direlarik Estatu osoan!

Baina geuk ere, V Centenario-koen morroin fidelak dirudigu. Eta on izaten da honelako zaplaztekoak noitzenka jasatea.

L A P H I T Z A

